



Tramiteen katalogoa Euskadi.eus egoitza elektronikoan

Euskadi.eus egoitza elektronikoak Tramiteen katalogoa tresna bat du, pertsona fisiko eta/edo juridikoei aukera ematen diena edozein motatako izapideak aurkitzeko: laguntzak, baimenak, komunikazioak, ikuskapenak, erregistroa, ziurtagiriak, etab.

Bilatu beharreko izapidearen edozein testu sartzean, eta "Bilatu" botoia sakatuta, Tramiteen Katalogoak lehen emaitza bat ematen du.

Lehen emaitza horiek hainbat kontzepturen arabera iragaz daitezke:

- Tramite-mota
- Tramitearen egoera
- Gaia
- Erakundea



Tramiteen katalogoa Euskadi.eus egoitza elektronikoan

Emaitzetako bat hautatuta, tramitearen fitxan sartuko gara. Izapide guztiek fitxa normalizatu eta edukien egitura dute:

- **Oinarrizko informazioa:** Deskribapena, Nori zuzendua, Araudia, Erakundeak, Harremanetarako informazioa.
- **Tramitazioa:** Hemendik izapidetze elektronikoaren formularioak eta aurrez aurreko izapidetzearen formularioak eskuratu ahal izango dira.

Eskabide-formulario guztiak (bide elektronikoa eta aurrez aurrekoa) **nahitaez erabili beharreko inprimaki elektroniko normalizatuak dira.**

- **Ondorengo izapideak kanal elektronikoan:** eskaeraren ondorengo izapide guztiak Nire Karpeta herritarren karpeta espediente elektroniko irisgarritik bertatik egingo dira.
- **Ondorengo izapideak aurrez aurreko kanalean:** fitxa bakoitzak "Beste izapide batzuk" menuko aukera bat du, izapide bakoitzerako inprimaki elektronikoetara sartzeko: uko egitea: alegazioak, errekurtsioak, etab.